



❖ BERRIAK ELKARTEA  
Gabonetako ordutegiak banatzeko eta txotx denboraldiaz hitz egiteko bilera bihar

Berriak elkarteko tabernariak bilera izango dute bihar Biteri kultur etxean. Bertan banatuko dituzte Gabonetako ordutegiak, eta datorren txotx denboraldiari buruz hitz egingo dute. Bilera bihar izango da, arratsaldeko 16:30etatik aurrera. ||

Erregetako kabalgotan parte hartzeko deia

Gabonak gainean dira, eta berehala dira erregetako kabalgotako entsaioekin hastekoak. Berriak elkartetik dei egin diete kabalgotan parte hartu nahi duten ume eta gazteei bihar izango den bilerara joateko. Biteri kultur etxean izango da, arratsaldeko 17:30etan hasita. ||

❖ ATLETISMOA

Gabonetako loteriko 100 txartel baliogabetu dituzte

Hernaniko atletismo elkartetik jakinarazi dutenez, bertan behera utzi dituzte Gabonetako loteriko 100 txartel. Adierazitakoaren arabera, 16.244a da salgai jarri duten zenbakia Hernaniko leku ezberdinetan eta Gunea garagardotegiak ostu egin dituzte. Hortaz, esan dute bertako 100 txartelak baliogabetu egin dituztela, 0651etatik eta 0750etarainoko kontro zenbakia dutenak. ||

❖ AEK

Mariskadaren zozketa 24an

Hernaniko eta Astigarragako AEKK mariskada zozketuko du hilaren 24an, arratsaldeko 20:30etan. Txartelak egunean bertan erosi ahal izango dira, goiz eta arratsaldez, Plazan. ||

## Santo Tomas egunean txistor-jate herrikoia izango da Goiz Eguzkin

Azken egunetan ere izan da txistorra jateko aukera herrian: ostegunean Gureak elkarteak ospatu zuen, ostiralean Inmaculada ikastetxeak, eta atzo Plaza Berrin eta Sorgintxulon izan zen aukera.

SANTO Tomas eguna da gaur, eta herritik mugitu ere egin gabe, izango da festaz gozatzeko aukera. Goiz Eguzkiko kideek antolatu dute txistor-jate herrikoia, eta goizeko 11:00etatik aurrera izango da, egoitzan bertan.

Hala ere, gero eta nabaria goa da herrian dagoen ohitura eguna ospatzeko, eta horren adibide dira azken egunetan egin diren feria guztiak. Atzo, San Joan Konpartsak jarri zuen festa Plaza Berrin. Goizeko hotzari aurre egin, eta herritar asko izan ziren bertara hurbildu zirenak txistorra mokadutxo bat jatera. Arratsaldean berriz, erromeria izan zen, Patxi Lopezen eskutik.

Sorgintxulon urteko festa garrantzitsuenetakoa

Sorgintxulo auzokoak ere Santo Tomas festaren bueltan elkartu ziren atzo. Eguna ederra izaten da bizlagunentzat, urteko zitarik garrantzitsuenetakoa izaten baita. ||



Plaza Berrin eta Sorgintxulon txistorra izan zen atzo protagonista.



## Gabonetako menua prestatuko dute bihar Xalapartan, eta sarrera libre da

Emakumearen Elkarte Soziokulturalak antolatzen du, eta arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

GABONETAN zein menu jarri izaten da askoren buruhaustea, eta idea batzuk hartzeko asmoarekin, ikastaro azkarra antolatu du Her-

naniko Emakumeen Elkarte Soziokulturalak.

Arratsalde bateko ikastaroa Ikastaroa bihar izango da,

arratsaldean, Xalaparta elkartean. Bertan, Gabonetako menu osoa egingo dute Irizar Sukaldaritza eskolako sukaldariak.

Ikastaroa arratsaldeko 16:00etan hasiko da, eta nahi duten herritar guztiak izango dute bertaratzeko aukera, sarrera libre da izango baita. ||

**arrosak**  
edergintza

Antziola 9  
Tel. 943 33 02 89

**'Cavita'ztoa**  
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologian azken berrikuntza - Tratamendu pertsonalizatuak

**AZAROAN ETA ABENDUAN PREZIO BEREZIAK**  
Hartu ezazu bonoa orain eta ondo datorkizunean egin ezazu tratamendua

Zatuz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

TERMO SALUD  
cavitación

gerria  
6 sesio  
2,5 €

abdomena  
6 sesio  
1,6 €

izterrak  
6 sesio  
2,8 €

**AITOR PEÑA**

Fruta-denda - Urdaitegia - Janari-denda - Produktu biologikoak

**EGUBERRI ON!!**

LARRAMENDI kalea 5, HERNANI Tel. 943 33 31 03

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

**EGURALDIA**  
**GAUR** Asko aldatuko da eguraldia. Hego-mendebaldeko haize zaka-rra ibiliko da, eta laino asko izango dira. Tenperaturak gora egingo du, 13°C ingurura.

**BIHAR** Lainoak izango dira nagusi, eta arratsaldean euri txiki-ertaina egingo du. Haizea zakar ibiliko da eta tenperaturak gora egingo du. (euskaime)

## ERREMONTA

# Barrenetxeak ozta-ozta galdu zuen debuteko partidua

Urrutia IIa izan zuen bikote, eta 35-30 galdu zuten Oñatz eta Zubiren kontra. Hernaniarrak amaieran aitortu zuen «partidua oso emozioantea» izan zela eta «eguna gogoratzekoa» izango dela.

LARUNBATEAN debutatu zuen, Galarretan, Endika Barrenetxea erremontista hernaniarrak. Urrutia IIarekin jokatu zuen eta aurrean Oñatz eta Zubiri izan zituzten. Lauentzat profesional mailako aurreneko partidua izan zen, debuta, eta Oñatz eta Zubiri gailendu ziren, 35-30.

Partidua oso berdindua hasi zen, eta 17-17ko berdinketaren ondoren Oñatz eta Zubiri nagusitu ziren, batez ere peloteoan. 24-35 jarri ziren markagailuan, baina Urrutia IIak eta Barrenetxeak lanean jarraitu zuten, eta gerturatzea



Zubiri, Oñatz, Barrenetxea eta Urrutia IIa, debuteko partiduan.

lortu bazuten ere, 30-35 galdu zuten.

Barrenetxearen sakea nabarmendu zuten partidua ikustera hurbildu zirenek, eta bera ere pozik agertu zen

amaieran: «hasieran oso urdu-ri nengoen, baina oso partidua emozioantea izan da. Ezin izan dugu irabazi, baia eguna beti gogoratzeko modukoa izan da». II

## Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

## Le plaisir du chocolat... dio iragarki batek

Ados. Neuk ere maite dut txokolatea... beltza... kakao asko duena (%70). Zuhaitz koxkor batek ematen du kakaoa.

Kakao zuhaixka Ameriketako da, jatorriz. Jainkoen Janari, deitzen diote indioek Ekuador estatuan, Los Rios eta El Oro-ko lurretan, milioika landare zeuden, duela 200 urte. (Gerora, bi herri horiek ondotoxo ezagutu dute euskal misiolariak.) Kakao lanerako, esklaboak behar ziren: Espainia, soilik, 1.600.000 esklaboren jaun eta jabe zen: gehienak Afrikatik eramanak (asko, euskal ontzietan). Dirutza handia egin zuten terratenienteek: la pepa de

oro deitzen zioten kakaoari. (Ikus, liburutegian Ekuadorrez dagoen erakusketa.)

Esklabo jendeak, matxete kolpez, kateak eten zituenean (Ekuadorren, 1851. urtean), Afrikara emigratuko zuten kakao landareak, luberrri bila: Bolikosta, Ghana... Izen berria ere jarri diote kakaoari: urre marroia.

Afrikar, 300.000 ume (9-12 urteko) bihurtu dute esklabo, kakao merke eta ona ateratzeko. Nestle da esklabo jende horri etekin gehien ateratzen dionetako bat, lotsa handirik gabe.

Multinazionalaren buru batek kazetari bati honela erantzun baitzion: "Ados. Nahi baduzu, esklaboak izango dira; baina, denok dakigu, beste-la ere, ume horiek pobre izango

direla, beti". Nestle, iaz, %70 gehiago irabazi zuen: 12.000 milioi euro: Etiopia osoko gosea hiltzeko: 400 milioi, nahikoa.

Wukroko jendea dihoan ospitalera, ume bat ekarri dute, gaur: Mubarek du izena. Kilotan, %70 gutxiago pisatzen du, hemengo batek baino. Afrikar, milioika Mubarek daude. Gehienak, ataka batean sartuta: edo esklabo bihurtu, edo goseak hil, edo...

*Le plaisir du chocolat: Nestle!* iragarkiak, 25 segundo iraun du: 5 gramo txokolatek ahoan irauten duena: une horretan, munduan, 5 ume irentsi ditu goseak. Zein gerrak akabatzen ditu hainbeste ume? dio Olanerak.

Jexux Eizagirre

**VINOS RIOJA**

**BETIKO GIROA !!**

KALE NAGUSIA 61,  
20120 HERNANI. TEL: 943 55 64 92

**HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK**  
(GURE INGELESETXEA)

**ESKOLEN AZKEN EGUNA ASTEARTEA, ABENDUAK 22 HIRUHILABETEKO BERRIA URTARRILAK 7, OSTEGUNA**

Plaza libreka daude astelehen eta asteazkeneko eskolatan Erdiko maila gazteentzat:  
18:00-19:30 Cambridge Proficiency:  
20:00-21:30 Cambridge First (4 aukerak)

**Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08**  
Kale Nagusia 41 - 1

**ERRIOGUARDA**  
"E N E A"

**OHARRA**  
Asteazkena, abenduak 23, GAUEAN

**IREKITA**

Iturriaga kalea, 10 - Tel: (943) 33 02 91  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

## ERRUGBIA

### Kadete eta jubenilak nagusi

Hernaniko kadete eta jubenil maiko taldeek irabazi egin zuten larunbatean. Biek Bera Beraren kontra jokatu zuten; kadeteak 0-50 gailendu ziren, eta jubenilak 10-39. II

## Atez ateko zalantzak argitzen

Atez atekoa martxan jarri denetik zenbat jasotzen da berezita Usurbilen?

Hondakinen %80tik gora. 2008ko apirilean %23 bakarrik jaso zen berezita. 2009ko apirilean, berriz, % 82.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## JOSE JAIME GOMEZ MARTIN

'TXINO'

### KATANGAKO LAGUNAK



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTELEHENA, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** paroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 21an



ZURE BORROKA, GURE EREDU. - "TAPATXULOS" GOGOAN ZAITUGU.  
ZURE LAGUNAK: MARI CARMEN, JULIAN, MILA ETA OTSUA.

## IRAGARKI MERKEAK

**Hernanin duplex berria salgai**, estreinatzeko. Kale Nagusian (sarrera Tilosetatik), 130m2, 3 logela eta 2 komun. 462.000€ (76,8m). **Deitu: 656 316 031.**

**Emakume euskaldun bat** behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Kotxeduna. **Deitu: 656 411 932.**

**Pertsona bat** behar dugu etxeko eta sukaldeko lanetarako. Goizeko 8:30etatik eguerdiko 13:30etara. **Deitu: 685 725 816**

**Alokatzeko edo erosteko etxe** txiki baten bila nabil, Hernanin edo inguruetan (berritua edo ez). **Deitu: 943 33 11 83 - 656 721 492**

**Etxe bila nabil**, 2-3 gela dituen. Lehenbailehen sartzeko. Pertsona arduratsua naiz. **Deitu: 638 349 760**

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Azieta 2, behea Tel. 943 55 32 78.**

**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**